



zerbikas^{en}
gidak
2

**Ikasketa eta
zerbitzu solidarioa
eta oinarrizko
gaitasunak
garatzea**

*_ Cándido Hernández, José Larrauri
eta Rafael Mendia*



aurkibidea

1. Zer dira gaitasunak?	4
2. Oinarrizko gaitasunak	5
3. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa: gaitasunak garatzeko metodologia	7
4. Erkidegoko hezkuntza-arloko hainbat eragilerengana zabaltzea	14
5. I+ZS, gizarte- eta herritar-gaitasuna, eta autonomia eta ekimen pertsonala	15
6. Nola hasi?	17
7. Baliabideak	20







Gida honetan, **IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA** aurkeztu nahi dugu, baliabide eraginkorra izan baitaiteke **oinarrizko gaitasunak** garatzeko, bereziki, gizarte- eta herritar-gaitasunak, eta norberaren autonomia gauzatzeko. Ez da metodologia berri-berria, harreman estua baitu, alde batetik, esperientzian oinarritutako ikasketzen metodologia eraginkorrekin (proiektuen metodoekin, praktikekin, arlo-lanekin...), eta, bestetik, erkidegora zuzendutako jokabide prosozialarekin.

Proposamen honek duen alderdirik berriena da batera erabiltzen dituela bi osagai horiek. Ikasketaren eta Zerbitzu Solidarioaren artean eratzen den harremana aberasgarria da bien-tzat:

- **Zerbitzuak** zentzua ematen dio **ikasketari**, hari esker erabilgarria eta baliagarria baita, eta, gainera, didaktikoak, curriculumekoak eta antolakuntzakoak diren beste osagai batzuk jasotzen baititu.
- **Ikasketari** esker, zerbitzuaren kalitateak gora egiten du, eta sakontasun gehiago hartzen du: hausnarketa bultzatzen du, egiten denaz eta zer dela-eta egiten den gogoeta egin dezagun.

Hargatik, lortzen den emaitza bi osagaien batuketa baino askoz ere gehiago da: produktu berria da.

1 ZER DIRA GAITASUNAK?

“Gaitasun”¹ hitzaren definizio gehienek alderdi hauek dituzte batera:

- Ahalmen edo trebetasun bati egiten diote aipamena.
- Haren helburua da zeregin batzuk eraginkortasunez egitea, edo era askotako egoerei modu eraginkorrean aurre egitea.
- Zeregin horiek testuinguru zehatz batzuetan betetzen dira.
- Zeregin horiek egiteko, ezinbestekoa da jarduerak, trebetasunak eta ezagutzak abian jartzea, aldi berean eta elkarren artean harremanetan jarriz egin ere.

Egoera jakin bati eraginkortasunez aurre egiteko behar diren ezagutzak, prozedurak eta jarrerak abian jartzeko gai baldin bagara, orduan, gaitasuna izango dugu.

¹ Como aprender y enseñar competencias. 11 Claves. Zabala Antoni; eta Arnau Belmonte, Laia. Arg.: Grau, 2007.

Industrializazioaren ondoko gizarteetako hezkuntza-sistema guztiak batera duten arazo bat da ikasleek ezagutza handiak izaten dituztela, baina, hala ere, zailtasunak izaten dituztela ezagutza horiek egoera zehatzetan baliatzeko. Ikuspegi berri honi jarraiki, ikaskuntzaren adierazlea ez da ikasleak metatzen dituen irakasgaien edukien kopurua, baizik eta eduki horiek **hainbat testuingurutan erabiltzeko eta zereginak konpontzeko ikasleak duen gaitasuna** (ikasketa-, familia-, lan-, gizarte-inguruneetan eta arlo pertsonalean).

Egia da “egiten jakiteko”, lehenik, “jakin” egin behar dela, baina jakintza hori ez da aski ikaskuntzaren adierazlea izateko; izan ere, ikaskuntzaren balioak lotura estua du testuinguru desberdinetan jakintzak aplikatzeko dugun gaitasunarekin.

“Era askotako eta ustekabeko egoera konplexuetan eraginkortasunez jarduteko gaitasuna; jakintzetan oinarritzeaz gain, balioak, trebetasunak eta esperientzia ere hartzen ditu oinarritzat.” (Eurydice, 2002)²

² Las Competencias Clave. Un concepto en expansión dentro de la educación general obligatoria. Eurydice. La red europea de información en educación. Ministerio de Educación Cultura y Deporte. Centro de Información y Documentación Educativas (CIDE), Madrid, 2003.

2 OINARRIZKO GAITASUNAK³

“...pertsona guztiek garapen pertsonala lortzeko behar dituzten horiek, eta, orobat, herritartasun aktiboa, gizarteratzea eta lana lortzeko behar direnak” (Europako Erkidegoetako Batzordea, 2006)⁴

Oinarrizko gaitasunak dira pertsona guztiek gizartean eraginkortasunez txertatzeko behar dituzten trebetasunen multzoa.

Hezkuntza-sistemak, oinarrizko ikaskuntzen aldiak, nahitaez bermatu behar du trebetasun horiek behar den moduan garatuko direla, hartara, pertsonak gizartean, lanean eta arlo pertsonalean ondo txertatuta egon daitezten.

Trebetasun horiek eduki ezean, arriskuan egongo litzateke pertsonak helduaroko bizitzari aurre egiteko eta etengabeko ikaskuntzan jarraitzeko duten gaitasuna.

- 3 Era berean erabiltzen dira “oinarrizko gaitasun”, “funtsezko gaitasun” edo “giltzarri diren gaitasun” hitzak. Guk “oinarrizko gaitasun” terminoa aukeratu dugu, hori baita gure herrialdean hedatuen dagoena.
- 4 Europako Parlamentuak onetsitako testuak. 2006ko irailaren 26a, asteartea – Strasburgo. Etengabeko ikaskuntza. Oinarrizko gaitasunak.

Nahitaezko aldia bukatu ondoren, ezinbestekoa da gaitasun horiek garatzen, gaurkotzen eta haiei eusten jarraitzea, hori bizitzan barrena egiten den ikaskuntzaren zati bat baita.

OINARRIZKO GAITASUNAK HLO-an⁵

1. Hizkuntzako komunikazioko gaitasuna.
2. Matematikarako gaitasuna.
3. Ingurune fisikoarekiko elkarreragineko eta ezagutzako gaitasuna.
4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.
5. Gizarte- eta herritartasun-gaitasuna.
6. Kultura- eta arte-arloko gaitasuna.
7. Ikasten ikasteko gaitasuna.
8. Autonomia eta ekimen pertsonala.

- 5 Gaitasun horiek autonomia-erkidego guztietako curriculumetan daude jasota, haien idazketan aldaketa txiki batzuk badaude ere. 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. 175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak finkatzen eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

OINARRIZKO GAITASUNAK LANTZEKO BOST GAKO

- 1 Oinarrizko gaitasunak era berean garatzen dira hala hezkuntza formalean, nola hezkuntza ez-formalean edota informalean.
- 2 Gaitasunen multzoak lotura estua du, alde batetik, ikasketa- eta lanbide-arloko jakintzaren garapenarekin (ikasten ikastea eta egiten ikastea), eta, bestetik, gizarte-arloko garapenarekin (beste pertsona batzuekin bizitzen ikastea) eta, orobat, garapen pertsonalarekin (izaten ikastea).
- 3 Oinarrizko gaitasunak ez daude banatuta, elkarren arteko loturarik gabe; aitzitik, elkarri lotuta daude. Haren osagaietako batzuk ikuspegi osagarrietatik aztertzen edo uztartzen dira. Gainera, gaitasun horietako bakoitza garatu eta erabili ahal izateko, besteak ere behar dira: nola azaldu "ikasten ikasteko gaitasuna", kontuan hartzen ez baditugu "hizkuntzazko komunikazioko gaitasunari" dagozkion osagaiak, edota "informazioa lantzeko gaitasuna" eta "gaitasun digitala"?

- 4 Gaitasunen artean dagoen lotura nabarmen agertzen da gaitasun guztiek batera dituzten osagai batzuetan, hala nola, arazoak konpontzean, pentsamendu kritikoan, emozioak kudeatzean, ekimen sortzailean, edota arriskua ebaluatu ondoren erabakiak hartzean.
- 5 Oinarrizko gaitasunak lagungarriak dira ezinbestekoak diren edukiak zehaztu ahal izateko.



3 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA: GAITASUNAK GARATZEKO METODOLOGIA

Gaitasunak garatzeko, ez dago metodologia bakar bat; baina, hala ere, metodologia batzuk beste batzuk baino eraginkorragoak dira.

Hezkuntza-sisteman lehentasuna izan duen tradiziozko metodologiak (hau da, eduki akademizistegia, arkatzez eta orrian egindako banakako lanak duen lehentasuna, oroimenezko ikasketak gehiegizko garrantzia izatea...) muga handiak ditu, oztopo baita ikasle askok gaitasunak garatu ahal izan ditzaten.

Ondoko lerroetan, gaitasunak garatzeko oinarritzkoak diren alderdi metodologiko batzuk jasoko ditugu, eta aditzera emango dugu zein neurritan islatuko diren Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuetan.



TESTUINGURU ZEHATZETAN GARATZEN DA

Gaitasunak garatzea

Gaitasunak garatzeko funtsezko alderdi bat da ikasketak testuinguruan jartzea. Horretarako, eduki berriak benetako egoeretan edo ikasleek benetakotzat har ditzaketen egoeretan aztertu behar dira, hartara, zentzua eta funtzionaltasuna izan ditzaten, hau da, baliagarriak izan daitezen ingurunean sortzen diren arazoak konpontzeko eta eskaerak betetzeko.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa

Testuinguru ugari jartzen digu eskura ikaskuntzak garatzeko: ez da kontu bera argudiozko testu bat prestatzea, hizkuntza eskolan, ariketa gisa, edo auzoko biztanleei zuzendutako liburuxka bat prestatzea, eta, bertan, zaborraren gaikako bilketaren aldeko argudioak paratzea, garapen iraunkorra sustatzeko proiektu baten esparruan.

Ez du indar berberak hainbat motatako diagramen bidez informazioa adierazten ikasteak, matematika-arloan, testuingururik gabeko ariketa bat balitz bezala, edota hori egiten ikasteak arlo-lan batean bildutako informazioa antolatzeko nahitaezkoa den tresna gisa.

Adibideak

- Lehen Hezkuntzako ikasleek proiektu bat egingo dute Odol Bankuarekideztan:
 - Idatzi argudiozko testuak auzoko herritarrak odola ematera bultzatzeko.
 - Prestatu liburuxkak eta txartelak, odola ematea sustatzeko.
 - Diseinatu iragarkiak eta testuak dramatizazioak egiteko.
- Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bateko ikasleek egile klasikoen testuak aztertuko dituzte, gaur egun duten zentzua sakonduko dute, eta eraldatuko dituzte, hip-hop eta rap bezalako gazte-erritmoen arabera errezitatuz, gazteen parte-hartzea sustatzeko ekimen baten barruan.



EKIN KONPLEXUTASUNA IKASTEARI

Gaitasunak garatzea

Konplexutasuna ikasteko, beren garatze-mailaren arabera egokiak izan daitezkeen egoera konplexuei egin behar diete aurre ikasleek; eta, horrez gain, estrategiak eman behar zaizkie ikasleei, langintza horri eraginkortasunez ekin diezaioten (arazoa aztertzea, esku hartzeko estrategia hautatzea, betearaztea eta ebaluatzea).

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa

Pentsamendu estrategikoa garatzeko aukera ematen digu, baina ez simulazioak edo balizko kasuak oinarritzat hartuta, baizik eta osagai guztiak barne hartzen dituen benetako gertaleku bat abiaburutzat hartuta: errealitatea aztertzea, eta proiektu bat sortzea, planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea.

Bestalde, egokitu ahal da, ikasle-talde bakoitzaren egoera bereziaren arabera, edozein mailatan edo motatan.

Adibideak

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurrak bat etorriko dira Udaleko lorezaintzako brigadarekin, eskolatik hurbil dagoen parke batean "Haurren lorategia" zedarritzeko. Eskolako mintegia abiaburutzat hartuta, laguntza emango dute lorategia landatzeko, eta hura zaintzeaz arduratuko dira ikasturte osoan.
- Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bateko nerabeek informatika irakatsiko diete auzoko biztanleei. Horretarako, lan-plangintza bat prestatuko dute, eskolak antolatuko dituzte, emaitzak ebaluatuko dituzte, eta hizkuntza-arloan duten gaitasuna finduko dute eskolak hobeto emateko.



IKASLEEK DUTEN ZEREGIN NAGUSIA SUSTATZEN DU

Gaitasunak garatzea

Gaitasunak eskuratzeko, ikasten duen pertsonak zeregin nagusia jokatu behar du: ezinbestekoa da pertsona horrek parte hartzea irakasteko-ikasteko prozesua diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko lanetan.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa

Proiektuen metodologiak duen bereizgarrietako bat da ikasleek proiektua garatzeko aldi guztietan hartzen dutela parte: zein alderdi landuko den, zereginak eta denbora nola banatuko den, lana nola ebaluatuko den...

Irakasleek, adina eta taldea-ikasgela aintzat hartuta, egin beharreko zerbitzuak aurkeztuko dituzte era irekiagoan edo itxiagoan: motibazioa piztuko dute, dinamizatu egingo dute, arazoak azalduko dituzte, informazioa emateaz gain, informazioa eta orientabidea aurkitzeko laguntza emango dituzte, tresnak jarriko dituzte eskura, hausnarketa sustatuko dute, laburpena egiteko laguntza emango dute, adituaren jakintza emango dute, prozesuan barrena ikasitakoari buruz kontzientzia hartzen lagunduko dute...

Ikasleek, berriz, kontzientzia hartuko dute, eta ohar-tuko dira erkidego bateko kideak direla, eta, orobat, aukera dutela erkidego hori hobetzeko lanetan parte hartzeko, bizi izandako esperientzietatik harantz joz, herritartasun izaera hartuz.

Era berean, informaziorik garrantzitsuena bilatu eta aukeratuko dute, taldean lan egingo dute erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko, eta esku-hartzea planifikatu, betearazi eta ebaluatuko dute, haien jakintza erakutsiz eta, era berean, beste jakintza batzuk ikasiz.

Adibidea

- Bigarren Hezkuntzako Musikako ikasleek kontzientzia hartuko dute Kongoko Errepublika Demokratikoko herri batean dagoen pobreziaz. Interneten bidez, alderdi horretako egoera politikoari, ekonomikoari eta sozialari buruzko informazioa bilduko dute. Beste ikasturte batzuetako ikasleekin eta Kontserbatorioko adiskideekin elkartuko dira, eta Elkartasuneko Kontzertua antolatuko dute, dirua lortzeko eta, gero, Bandundu herrira bidaltzeko.



LANKIDETZAKO LANA SUSTATZEN DU

Gaitasunak garatzea

Lankidetzan jarduten duten taldeetan arituz, lana berdinak diren lagunen artean partekatu ahal da, eta ikaskuntza eraginkorra eta eraikitzailea sustatu ahal da. Bestalde, hori lagungarria izan daiteke pertsonen arteko komunikazioa bultzatzeko, bai eta ikasleek beren buruarengan eta ikaskideengan konfiantza izan dezaten ere.

Laneko ikuspegi horrek berezko motibazioa sortzen du, ikasleen autonomia pizten du, eta onuragarria da eskolako errendimendua hobea izan dadin.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa

Erkidegoari zerbitzu bat egiteak benetako zentzua hartzen du taldea osatzen duten kide guztiek zerbitzua garatzeko dauden aldi guztietan esku hartzen dutenean. Erkidegoari zerbitzu bat egiteak benetako zentzua hartzen du taldea osatzen duten kide guztiek zerbitzua garatzeko dauden aldi guztietan esku hartzen dutenean.

Adibideak

- Lehen Hezkuntzako 6. ikasturteko ikasleak beren herriko adinekoen egoitzako pertsonengana hurbilduko dira. Kontzientzia hartuko dute denboraren bilakae-raz, gaur egungo gizartean adineko pertsonen emoziozko egoera zer-nolakoa den jakingo dute, eta, horrenbestez, dinamizatzeko zerbitzu bat eskaintzeko aukera aztertuko dute.
- Lanbide Heziketako ikasleak ohartuko dira pertsona batzuek zailtasunak dituztela beren etxean moldatzeko, eta, hortaz, jarduerak antolatuko dituzte, mugikortasuna murriztuta duten pertsonen beharriaz zuzendutako etxe egokiak prestatzeko.





CURRICULUMEN BERRIKUSPEN KRITIKOA EGIN BEHAR DA

Gaitasunak garatzea

Ikaskuntzak denbora behar du; oinarrizko irakaskuntzetan curriculumen edukiak gehiegi zamatzea oztopo da behar bezala ikasi ahal izateko, eta, gainera, frustrazioa piztu ahal du hala ikasleengan nola irakasleengan.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak laguntza ematen digu gizarte aldetik garrantzia duten gaiak zehazteko. Dena egitea ezinezkoa bada, zein ikaskuntzak izango du garrantzi handiena DBHko 1. ikasturteko ikasleentzat? Atmosferaren geruzak eta haren neurriak eta ezaugarriak buruz ikasteak duen garrantzia nabarmendu beharko dugu, edota berotegi-efektua aztertzeak eta horri aurka egiten jarduteak duen ardua azpimarratuko dugu?

Adibidea

- Bigarren Hezkuntzako irakasleen taldeak esperientzia nabarmenak aurkitu nahi ditu, lehen eta bigarren ikasturteetako curriculumen edukiak hautatu ahal izateko. Oinarrizko bi ideia-aren inguruan dauden aukerak

aztertuko dituzte; hona ideiak: ikasteko proiektu integratuak eta ikaskuntzaren gizarte-ikuspegia. Aukeren artean, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa azalduko da.

Irakasleen taldeak proiektuetan erabiltzen, garatzen eta indartzen diren gaitasunak aztertuko ditu, eta, horren ondoren, hainbat proposamen aurkeztuko dizkie ikasleei, ikasleek beren jakintzak erakutsi ditzaitez, bai eta prozesu horretan eskuratzen dituzten ikaskuntzak ere, besteak beste, ekintzaileak izateko ikaskuntza, ikasten ikastea, eta gizarte- eta herritar-tasun-arloko gaitasuna.





ESKOLAREN ANTOLAKUNTZARAKO MOLDE BERRIAK BEHAR DIRA

Gaitasunak garatzea


Lehen aipatutako oinarri metodologikoak ezartzeko, eskoletako egiturek malguagoak izan behar dute. Orduetegiak ez dute hain zorrotzak izan behar, guneak zatitu behar dira, eta ikasleak taldekatzeko irizpideak erraztu behar dira (adina edo ikasketa-maila aintzat hartuta). Era horretan, ikasleen arteko elkarreragina errazagoa izango da, baita ikasleen eta hezkuntza-erloto beste eragile batzuen arteko harremana ere, eta, halaber, lagungarria izango da haien mugikortasuna hobetzeko, era askotako iturritan informazioa aurkitzeko, era askotako euskarritan baliatu ahal izateko, eta eskolako zein eskolaz kanpoko ordutegiak bateratu ahal izateko...

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa

Proiektuak askotarikoak badira, errazagoa izango da saiakuntzak egitea antolakuntzako egitura askorekin. Horrek aukera emango digu hainbat taldetan banatuta lan egiteko, ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo arituta, bai talde-ikasgela bereko lagunekin edota beste ikasgela batzuetako lagunekin, bai senideekin, baita auzokoekin ere.

Adibidea

- Aurreko adibidean, hiruhileko bakoitzeko azken bi asteetan proiektuak garatzean, talde-ikasgelen ordutegiaren antolakuntza hautsi beharko da, proiektuei egokitutako lan-taldeak abian jarri ahal izateko.
- Irakasle bakoitzak bere gain hartuko du zereginen multzo bat dinamizatzeko, eta, orobat, ikasleen talde baten edo batzuen jarraipena egiteko ardura. Azkenean, prozesua ebaluatuko da, eta ikaskuntzen ezarpena ere bai, hau da, gaitasunak zenbateraino garatu diren, ikasleek zenbateraino parte hartu duten eta abar.





PROZEDURETAN ETA GAITASUNETAN EGINDAKO TREBAKUNTZAZ HARATAGO JOATEA

Gaitasunak garatzea

Gaitasunak eskuratzeko prozesuak barne hartzen ditu "Izaten ikasteko" eta "Besteekin bizitzen ikasteko" hezkuntza-arloko asmoekin zerikusia duten osagaiak.

Era berean, ikaskuntzak garatzean, barne hartzen ditu emozioak kudeatzea, motibazioa, beste pertsonari buruzko ezagutza (hau da, haren sentimenduen, egoera pertsonalaren... ezagutza). Alderdi horiek zerikusia dute autoestimuekin eta gogo-aldarte onarekin; eta pertsona bakoitzaren eta talde osoaren emoziozko ongizatea lortzea dute xede.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa

Ikasleei laguntza ematen die jabeakuntza lortzeko, ikasi egiten baitute pertsona gisa garatzen, eta beren interes pertsonala eta erkidegoaren interesa bateratzen dituzten proiektuetan parte hartzen.

Adiskideekin lankidetzan arituta lan egiten ikasi behar da, baterako helburua lortze aldera. Horrez gain, aukera ematen digu gizartearekin konpromisoa hartzeko, zehaztuta dauden arazoak konpontzen lan egiteko.

Adibidea

- Herriko Elikagaien Bankuari laguntza ematearekin zerikusia duen proiektu batean, DBHko ikasleak laguntza hori behar duten pertsonen tokian jarriko dira.



4 ERKIDEGOKO HEZKUNTZA ARLOKO HAINBAT ERAGILERENGANA ZABALTZEA

Eskolak bere barnealdea ireki behar du, ingurunera zabaldu, eta eragileen lankidetzeta eta adituen jakintza bilatu behar ditu, ikasleen prestakuntza hobetze alderara. Kontu hori hain da nabarmena, non ia inoiz ez baita zalantzan jartzen. Izan ere, gure ikastetxeek proposamen ugari jasotzen dituzte, gizarte-intereseko gaietara lotutako programak garatzea proposatzen duten erakundeek eta taldeek bidalitako proposamenak: genero-arloko indarkeria, bide-hezkuntza, nerabeen arteko droga-kontsumoa, tokiko administrazioaren ekipamenduak eta zerbitzuak zein diren jakitea...

Kasu gehienetan, ekimen horiek zailtasunak izaten dituzte ikastetxeetako bizitzan txertatu ahal izateko: jarduera zehatzak izaten dira, irakasleek gutxi parte

hartzen dute haietan, ez dute zerikusirik izaten une horretan egiten ari den lan akademikoarekin, ez dira ebaluatzen, edo, ebaluatuz gero, horrek ez du inolako ondorioz izaten kalifikazioari begira... Hori dela eta, ekimen horiek parentesi baten modukoak izaten dira ikasleentzat, ez dute zerikusirik eguneroko lanarekin, eta, nahiz eta nolabaiteko balioa izan, hezkuntza-arloan izan dezaketen indarra oso mugatuta dago.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak esparru bateratzailea eskaintzen du, lanbide-arloko jakintza eta eragile desberdinak zeregin akademikora sar daitezten. Bultzada ematen du beren jakintza berezia behar den proiektuetan barnera dezaten, horrenbestez, ikasleen ikerkuntza aberastu dezaten, edota gizartean esku hartzeko baliabideak eta egiturak jar ditzaten.

Mintegi batzuetara joatea, udal-ekipamenduak ezagutzeko xedea duen programa baten barnean, jarduera interesgarria da, zalantzarik gabe. Hala ere, hezkuntza-arloan zentzu gehiago izango du, baldin eta Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu baten barruan txertatzen bada, eta, ildo horretan, ikastetxearen inguruneari buruz egingandako azterketa baten ondorio gisa, akordio bat egin baldin bada dagokion zinegotziarekin, udal-mintegietan lankidetzan aritzeko, lorategiak lehengoratzeko lanetan.



5 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA, GIZARTE ETA HERRITAR ARLOKO GAITASUNA, ETA AUTONOMIA ETA EKIMEN PERTSONALA

Orain arte ikusi dugunez, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa oso tresna baliagarria da, oro har, oinarrizko gaitasunak garatzeko, baina zentzu berezia hartzen du oinarrizko zortzi gaitasunetatik bi garatzerakoan; hain zuzen ere, honako hauek:

- **Gizarte- eta herritar-arloko gaitasuna da** “inguruan dugun gizarteko errealitatea ulertzea, elkarrekin bizitzeko erronkari eta gatazkei aurre egitea, balio eta jardute demokratikoetan oinarritutako juzku etikoa erabiliz, eta herritartasuna gauzatzea, norberaren irizpideari jarraiki, betiere, bakea eta demokrazia eraikitzeko laguntza emanez, eta jarrera eraikitzailea, solidarioa eta arduratsua izanik herritarren eskubideak eta betebeharrak betetzeari begira”⁶.
- **Autonomia eta ekimen pertsonala da** “banakako nahiz taldeko ekintzak edo proiektuak irudikatzeko,

⁶ 6 175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak finkatzen eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

abian jartzeko, garatzeko eta ebaluatzeko gai izatea, sorkuntza landuz, eta konfiantza, erantzukizuna eta zentzu kritikoa edukiz”⁶.

Gaitasun horiek garatzea erronka handia da hezkuntza-sistemarentzat:

Lehenik eta behin, talka egiten du gizartearen zati handi batek duen gizarteko ordezkartzearekin. Izan ere, horien arabera, herritartasuna baliatzeak zerikusi handiagoa du ongizatearen gizarteko zerbitzuen eta ondasunen kontsumoarekin, eta ez du hainbesteko zerikusirik, berriz, herritarren askatasunak baliatzearekin, ahalegin solidarioa izatearekin guztien onura bilatze aldera, edota erantzukizuna izatearekin gaitasunak lortu nahi dituen eskubideak betetzeko. Berriz ere, eskolak haize kontra joan behar du.



Bigarrenik, benetako agertokiak sortu behar dira, agertoki horietan gaitasun guztiak garatu ahal izateko. Ezagutza teoriko hutsak ez du berez bermatzen banakako nahiz taldeko proiektuak garatzeko gai izango diren herritar parte-hartzaileak eta solidarioak prestatuko direnik.

Hirugarrenik, hezkuntza-arloko eragileak ez daude elkarren artean lotuta (familia, eskola, gizarte-erakundeak), eta, hori dela eta, zailagoa da gaitasun horiek garatzea. Berriz ere ekarri behar dugu gogora "tribu osoaren laguntza behar dela haurra hezteko".

Zein laguntza eman dezake Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak gaitasun horiek garatze aldera? Eskolartzeko proiektuetan Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak etengabe parte hartzea lagungarria izan daiteke neska-mutilentzat:

- Sakonago ezagutuko dituzte gizarteko erronkak eta arazoak, haien arrazoiak eta ondorioak.
- Ikuspegi zabalagoa izango dute inguruan duten munduari buruz.
- Gizartea eraldatzeko lanarekin konpromisoa hartu duten elkarrekin eta pertsonak ezagutuko dituzte.
- Proiektuak egitearekin lotura duten gaitasunak garatuko dituzte: plangintzak egitea, kudeatzea, eza-gutzera ematea, ebaluatzea...

- Banakako trebetasunak eta gaitasunak ezagutuko dituzte, eta erkidegoaren zerbitzurako erabiliko dituzte.
- Autonomia pertsonala lantzeko onuragarriak diren balioak garatuko dituzte: autoestimua, ahalegina, jarraitutasuna, autokritika, frustrazioa jasateko tolerantzia...
- Balioak barneratuko dituzte eta koherentzia pertsonala hobetuko dute: elkartasuna, erantzukizuna, justizia, berdintasuna...
- Taldean lan egiteko gaitasunak hobetuko dituzte: elkarriketan aritzea, itunak egitea, amore ematea, eskatzea...
- Jarrera prosozialak eta bizikidetzarako onuragarriak diren ohiturak hartuko dituzte: ulertzea, adeitsua izatea, egonarrria izatea, eskuzabaltasuna...



6 NOLA HASI?

Ziurrena, ikastetxeetan egiten ditugun proiektuen artean, aberastu ahal izango diren ekimenak garatuko ditugu, hau da, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu gisa bilakatzeko moduko ekimenak. Horixe gertatuko da "Agenda 21" ekimenarekin, kanpaina solidarioekin, ingurunea ikertzeko lanekin, ohitura osasungarriari buruzko programekin...

Ekimen horietakoren bat Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bilakatu ahal izateko, batez ere, lau alderdi hartu beharko ditugu aintzat; hauek:

- Asmo hezigarri garbia: diziplinako zein eduki landuko dugu?, zein irizpide eta jarduera erabiliko dugu ebaluazioa egiteko?, curriculumeko zein arlok du zerikusia proiektuarekin?
- Jarduera solidarioak prestatuko ditu, erkidego zehatz baten zerbitzura.
- Ikasleen zeregin nabarmena sustatuko du, kontua ez baita ikasleentzako jarduerak prestatzea, baizik eta, nola edo hala, lortzea ikasleek parte har dezaten jarduera horiek diseinatzeko, egiteko eta ebaluatzen lanetan.
- Ekimena partekatuko du hezkuntza-erkidegoaren kanpokoak diren eragileekin.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bat garatzen hasteko esparruak era askotakoak izan daitezke:

- Arlo edo ikasgai batean egin ahal dugu.
- Aberasgarriagoa izango litzateke diziplinarteko gune bat lantzea, eta, hor, talde-ikasgela bateko irakasleek beren programazioak diseinatzea eta koordinatzea, ikasleek errazago ulertu ahal izan dezaten gizarte-ko arazo jakin batzuk haien parte-hartzearen bidez hobetu behar direla.
- Proiektuan izaera desberdinetako eta ingurune hurbileko eragileak sartuz gero, zentzu handiagoa izango luke.

Jakina denez, proiektuak tamaina askotakoak izan daitezke. Ekimen batzuek bi edo hiru aste beharko dituzte; beste batzuek, berriz, hiru hileko oso bat. Garrantzitsuena hastea da. Gure indarrak ondo neurtzea, proiektua era egokian planifikatzea, hartara, arrakasta bermatuta egon dadin, eta, bestalde, sakon ebaluatzea, hurrengo ekimenei begira ikaskuntzak ateratzeko.

Jarraian, kasu zehatz baten garapena aurkezten dugu: **"Bide-segurtasuna gure auzoan"** proiektua. Bigarren Hezkuntzako ikasleek auzoa nola hobetu aztertu dute, eta hurbil dagoen ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleen bide-segurtasuna handitzeko ekintza zehatz bat egitea erabaki dute.

GAITASUNEN ALDIAK	GAITASUNAK	
1 Arazoa zehaztea eta aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna: <i>Zein errealitatetan bizi diren ulertzea.</i> 	
2 Informazioa bilatzea	<ul style="list-style-type: none"> Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala: <i>Informazioa eta haren iturriak hautatzea, lantzea eta erabiltzea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntzako komunikaziorako gaitasuna.
3 Irtenbideak diseinatzea eta hautatzea	<ul style="list-style-type: none"> Autonomia eta ekimen pertsonala: <i>Aukerak eta mugak aztertzea. Egon eta egin daitezkeen irtenbideak irudikatzea. Norberaren irizpideari jarraiki hautatzeko gaitasuna izatea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Konpondu beharreko arazoaren araberako beste gaitasun batzuk.
4 Hautatutako irtenbidea betearaztea	<ul style="list-style-type: none"> Autonomia eta ekimen pertsonala: <i>Proiektu bat garatzeko aldiak zein diren jakitea. Ekintza bat planifikatzea. Erabakiak hartzea.</i> Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> Gaitasun zientifikoa. Ikasten ikasteko gaitasuna. Hizkuntzako komunikaziorako gaitasuna.
5 Gaitasunak eta teknikak ikatea	<ul style="list-style-type: none"> Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna: <i>Taldean dauden trebetasunak eta abileziak zehaztea.</i> Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala. Hizkuntzako komunikaziorako gaitasuna. Matematikako gaitasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasten ikasteko gaitasuna: <i>Proiekturako beharrezkoak diren beste abilezia batzuetan prestatzeko edo trebatzeko beharrianak zehaztea.</i> Autonomia eta ekimen pertsonala. <i>Ikasketak planifikatzea eta aditu baten iritzia eskatzea.</i>
6 Proiektua betearaztea	<ul style="list-style-type: none"> Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna. Autonomia eta ekimen pertsonala: <i>Proiektua gauzatzea. Betearaztea, erabakiak hartzea. Erabakitasunez jokatzeta. Etengabeko hobekuntza..</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazioko gaitasunak, eta gaitasun zientifikoak, matematikoak, digitalak...
7 Ebaluatzea, hausnartzea, egitea	<ul style="list-style-type: none"> Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala. Hizkuntzako komunikaziorako gaitasuna: <i>Egin dena, haren arazoak eta erkidegoan izandako hobekuntzak aditzera ematea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasten ikasteko gaitasuna. Autonomia eta ekimen pertsonala. <i>Egindakoa ebaluatzea eta norberaren burua ebaluatzea. Ondorioak ateratzea. Hobetzeko aukerak balioestea.</i>



JARRAIKI: BIDE-SEGURTASUNA GURE AUZOAN

EKINTZAK

Ikasleek, irakaslearen laguntzaz, auzoan dauden alde indartsuak eta ahuleziak aztertuko dituzte. Ahulezien artean, taldeak zehatz jasoko ditu zabor-erakundearen bilketari lotuta dauden alderdiak, auzoan izandako zirkulazioko istripuak eta arkitekturako oztopoak.

Batzarrean bilduta, bide-segurtasunaren arazoari ekitea erabakiko dute, Lehen Hezkuntzako eskolako ikaslerik txikienak gogoan izanda.

Bide-segurtasuneko arazoei buruzko informazioa bilatzeko plangintza bat prestatuko dute.

Elkarteekin eta Udalarekin hitz egingo dute, Interneten informazioa bilatuko dute, gidaliburuak irakurriko dituzte...

Taldeka prestatuko duten informazioa talde osoari erakutsiko diote gero, hainbat teknika erabiliz.

Informazioan jasotako egoera hori ikusita, taldeak erabakiko du lanean aritzea, izan daitezkeen irtenbideak aurkitzeko, ikaslerik txikientzat ekintza bat egiteko hasierako proposamena aintzat hartuta.

Proposamenak egiteko aldia zabalduko da, eta azkenean haietako bat aukeratuko da; hauxe: bide-segurtasunerako zirkuitu bat eraikitzea txikientzat.

Taldeko eta banakako lanak, eta bilera orokorrak egingo dira, ekintzako **proiektua diseinatzeko**: aldiak, erantzukizunak, epeak, kontrolak, baliabideak, eta aurrera ateratzeko behar diren ezagutzak eta trebetasunak.

Lanaren plangintza prestatu ondoren, argi zehaztuko da zer jakin behar den, zer ikertu behar den, nori egin behar zaion galde, zertan jaso behar duten prestakuntza, taldeak aurretiaz badakiena ondo osatze aldera.

Gonbidapena egingo diete bide-segurtasuneko teknikari bati, zirkulazioko agente bati, aseguru-agentzia bati, eta istripua izan duen lagun bati; eta horiek egindako ekarpenei, gero, gurasoek esandakoa gehituko diete.

Plangintzari jarraiki, **zirkuitua eraikiko dute**, zirkulazioko arauak batuko dituzte, baita inprimatu ere, zirkuituaren funtzionamenduari buruzko publikizitatea prestatuko dute, jendeari gaikuntza emango diote txikienak trebatzeko gai izan daitezkeen, ikastetxearekin eta gurasoen elkarteekin adostuko dute irekitzeko ordutegia –hala eskolako nola eskolaz kanpokoak–, eta inaugurazioa egiteko eguna finkatuko dute, besteak beste.

Bide-segurtasunerako parkea abian jarri ondoren, ebaluazioa egingo dute, hasieran finkatutakoari jarraiki, alderdi onak eta txarrak zein diren jasoko dute, eta zein hobekuntza egin behar den emango dute aditzera. Prozesuan barrena ikasi duten guztiari buruz hausnarketa egingo dute.

Harremanak aztertuko dituzte, eta pertsonen artean sortu diren arazoak konponduko dituzte.

Azkenik, proiektua betearazi dela ospatzeko, jai prestatuko dute.



7 BALIABIDEAK

IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOARI BURUZKO LIBURUAK

PUIG, J. M. (Coord.): Aprendizaje y servicio (aps). Educación y compromiso cívico. Editorial Grao. Bartzelona, 2009.

MARTÍN, X. y RUBIO, L.: Experiències d'aprenentatge servei. Editorial Octaedro. Bartzelona, 2007.

MARTÍNEZ, M. (Coord.): Aprendizaje servicio y responsabilidad social de las universidades. Editorial Octaedro. Bartzelona, 2008.

PUIG, J. M.; BATLLE, R.; BOSCH, C. y PALOS, J.: Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía. Editorial Octaedro. Bartzelona, 2007 (1ª edición en catalán, 2006).

TAPIA, M. N.: Aprendizaje y servicio solidario. Editorial Ciudad Nueva. Buenos Aires, 2006.

OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEARI BURUZKO LIBURUAK

SERRAMONA, J.: Las competencias básicas en Educación Obligatoria. Editorial CEAC. Bartzelona, 2004.

BOLIBAR, A.: Ciudadanía y competencias básicas. Editorial Grao. Bartzelona, 2008.

PERRENOUD, P.: Diez nuevas competencias para enseñar. Editorial Grao. Bartzelona, 2007.

PUIG, J. M. Y MARTIN, X: Competencia en autonomía e iniciativa personal. Alianza Editorial. Madril, 2007.

MARINA, J. A. y BERNABEU, R.: Competencia social y ciudadana, Editorial Grao. Bartzelona, 2007.

MARTIN, E. y MORENO, A.: Competencia para aprender a aprender. Editorial Grao. Bartzelona, 2007.

ZABALA, A. y ARNAU, L.: 11 ideas clave. Cómo aprender y enseñar competencias. Editorial Grao. Bartzelona, 2007.

SANMARTI, N.: Evaluar para aprender. Editorial Grao. Bartzelona, 2007.

JOHNSON, D. y JOHNSON, R.: El aprendizaje cooperativo en el aula. Editorial Paidós. Buenos Aires, 1999.

GUÍAS ZERBIKAS

Zerbikas gida 0: Ikasketa eta zerbitzu solidarioen sakelako gida. Zerbikas Fundazioa. Bilbao, 2008.

Zerbikas gida 1: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioen proiektu bat. Zerbikas Fundazioa. Bilbao, 2007.

Zerbikas gida 2: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarritzko gaitasunak garatzea. Zerbikas Fundazioa. Bilbao, 2009.

PÁGINAS WEB

Zerbikas: www.zerbikas.es (Euskadi)

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei: www.aprenentatgeservei.org (Katalunia)

CLAYSS (Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario): www.clayss.org (Argentina)

National Youth Leadership Council: www.nylc.org (USA)

Learn and Serve America's: www.servicelearning.org (USA)

Proyecto Atlántida: www.proyecto-atlantida.org

Valnalón Educa: www.valnalon.com/valnalon_educa

© Edizio honen eskubideak:



BILBAO

Indautxu kalea, 9 beheko solairua

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Bizkaia pasealekua, 15-16 beheko solairua

VITORIA-GASTEIZ

Errege Atea, 20 beheko solairua

www.zerbikas.es

Disinua: Álvaro Pérez Benavente / www.estudionuvola.es

Itzulpena: Labayru

ISBN: 978-84-9726-591-1 • D.L.: BI-3567-09

Eskubide guztiak erreserbatuta



Babesleak: Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako
Zuzendaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Servicios Sociales



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Kultura
Saila
Departamento
de Cultura



fundazioa
zerbikas

ikasketa eta zerbitzu solidarioa
aprendizaje y servicio solidario

